



Gipuzkoako Foru Aldundia



Gipuzkoako Futbol Federazioa

23.ZIRKULARRA

2018-19 Denboraldia

BIGARREN URTEKO ALEBIN MAILAKO TEKNIFIKAZIO EKINTZAK

LEHIAKETEN ANTOLAKUNTZA

ERRENDIMENDUA ETA HOBEKUNTZA

Gipuzkoako Futbol Federazioaren laguntza teknikoarekin eta jokalarien heziketa prozesuaren kalitatearen maila igotzeko interesa duen Real Sociedad klubaren lankidetzarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiak, berari dagokion esparruan, Gipuzkoako Eskola Kiroleko Jardueren Programaren barnean dagoen bigarren urteko Alebin mailako eskolarateko lehiaketa antolatzen du.

1) KLUB PARTAIDEAK

I TALDEA: BEHOBIA C.D.; SAN MARCIAL C.D.; HONDARRIBIA F.E; ASTIGARRAGAKO MUNDARRO F.K.E.; MARIÑO C.D.; OIARTZUN K.E. eta REAL UNION CLUB SAD

II TALDEA: ANTIGUOKO K.E.; LENGOKOAK K.E.; TRINTXERPE C.D.; BETI ONA C.D.; INTERNACIONAL C.D.; ORERETA KAFEA F.C eta AÑORGA K.K.E.

III TALDEA: KOSTKAS K.E.; TOURING K.E.; PASAIA K.E.; VASCONIA C.D.; SPORTING DE HERRERA; SANSE eta MARTUTENE K.E.

IV TALDEA: USURBIL F.T.; URNIETA K.E; HERNANI C.D.; EUSKALDUNA S.D.; DANENA K.E.; OSTADAR S.K.T. eta BILLABONA K.E.;

V TALDEA: BEASAIN S.D.; IDIAZABAL K.E.; LAZKAO K.E.; ORDIZIA K.E. ; AITZKORRI-GOIERRI; TOLOSA C.F. eta INTXURRE K.E.

VI TALDEA: ELGOIBAR C.D.; ZUMAIAKO F.T.; ZARAUTZ K.E.; ORIOKO F.T. ; ANAITASUNA C.D.; AMAIKAK BAT K.E.; LAGUN ONAK C.D. eta MUTRIKU F.T.

VII TALDEA: BERGARA K.E.; EIBAR S.A.D.; ILINTXA S.D.; ARRASATE C.D.; UROLA K.E.; ALOÑA MENDI K.E.; ARETXABAETA K.E. UDA. eta URKI C.D.

2) LEHIAKETA SISTEMA:

Aurten 51 ekipo dauzkagu. Ekipo hauek zazpi ekipoko bost taldetan eta zortziko bi taldetan banaturik jokatuko dute bi fase ezberdinetan.

1.FASEA:

Kontzentrazio moduan, eta partidak lehiaketaren egutegian beltzez azaltzen den klubaren zelaian jokatuko dira (6 eta 7 partida hurrenez hurren).

Partidek egun hauetan jolastuko dute

- 2018/10/28
- 2018/11/18
- 2018/12/02
- 2019/01/20 (Donostia eta Azpeitia 2019/01/13 jolas dezakete)
- 2019/02/10
- 2019/02/17
- 2019/02/24

2.FASEA

Lehenengo fasean bezala, **kontzentrazio moduan ere jokatuko dira partiden lehiaketaren egutegian beltzez azaltzen den klubaren zelaian.**

A- Errendimenduko Liga (24 talde): Talde bakoitzeko 3 lehenak (3x7=21) eta laugarren hiru hoberenak - lortutako puntuak eta jokatutako partiden arteko ratio hoberena daukatenak - sailkatuko dira liga hau jokatzeko. 24 ekipo hauek 8ko 3 taldetan banaturik fase hau jokatuko dute. Banaketa hau kirol irizpideak eta hurbiltasun geografikoa jarraiki, itzuli bakarrera eta kontzentrazio moduan egingo da.

Talde bakoitzeko lehenak eta bigarren hoberena - lortutako puntuak eta jokatutako partiden arteko ratio hoberena daukatenak - (4 guztira), Txapelduneko Finala jokatuko du Zubietako instalazioetan. Lehendabizi zelaian honetan finalerdiak jokatuko dira eta ondoren Finala, hirugarren postua eta laugarren postua hurrenez hurren.

Lehenengo hiru sailkatuak, Gipuzkoa ordezkatuko dute Euskadiko Eskolarteko Alebin txapelketan.

B- Hobekuntzako Liga (27 talde): Beste guztiek (27), 7 ekipoko hiru taldetan eta 6 ekipoko talde batean banaturik liga hau jokatuko dute. Banaketa hau kirol irizpideak eta hurbiltasun geografikoa jarraiki, itzuli bakarrera eta kontzentrazio moduan egingo da (6 partida).

Talde bakoitzeko lehenak eta bigarren bi hoberenak (guztira 6) – lortutako puntuak eta jokatutako partiden arteko ratio hoberena daukatenak - sailkatuko dira denboraldi amaierako festa jokatzeko bere momentuan erabakiko den zelaian.

Sailkatutako 6 talde hauek aurrez egindako zozketa bitartez 3 ekipoko bi taldetan banatuko dira, eta hiru batean lehiaketa sistema jarraituz Hobekuntzako Finala, hirugarren, laugarren, bosgarren eta seigarren postuak erabakiko dira.

3) LEHIAKETA OSAGARRIAK:

Teknifikazio egitarauaren lehiaketa ekintzen barruan **Real Sociedad-eko Gabonetako Txapelketa dugu.** Txapelketa hau **Zubietako instalazioetan** egingo da abenduaren 23 eta 24ean.

4) **EKINTZEN BATERAGARRITASUNA:**

Proiektu honen funtsezko helburua ikasleak beraien ikastetxetako kirol ekintzetan ere parte hartzea izango da.

5) **LIZENTZIAK:**

Lizentziak gehienez 16 izango dira. Halere, **2018ko abenduaren 1a baino lehenago** altak eta bajak konpentsatu daitezke. Egiten diren lizentzia hauek idatzi batean ezarriko diren eta bigarren urteko alebin lehiaketetan eta teknifikazio ekintzetan parte hartuko duten ikasleekin bat etorri beharko dira.

Lehiaketaren lehen jardunalditik aurrera lizentziak edo jokalaria bakoitzak nor den ziurtatzen duen agiria aurkeztu beharko da. Hala ez bada partida galdutzat emango litzateke.

6) **ADINAK:**

Bakarrik 2007 urtekoak.

7) **JOKALARI KOPURUA ZELAI JOKOAN:**

Gehienez 8 jokalaria

Gutxienez 6 jokalaria

Gutxienezko kopurua lortzen ez bada, behar diren jokalariai lortu ez dituen taldeari partida galdutzat emango zaio, nahiz eta partida jolasteko aukera egon.

8) **IRAUPENA:**

Partidek **60 minutuko** iraupena izango dute, **20 minutuko 3 zatiekin (azken zatian aldaketa libreak izango dira)**. **20 minutuko bigarren zatian, aurrekoan parte hartu ez duten ikasleek parte hartu beharko dute. Halere aldatutako jokalariek bigarren zati honetan ere parte hartu dezakete, baina 20 minutuko lehen zatian jokatu duten jokalariai ordezkatuz bakarrik.**

9) **DEIALDIA**

Batzar Nagusian hartutako akordioa jarraituz, **taldea osatzen duten jokalarien %75a deialdian eta partiduan bertan egon beharko da. Arau hau betetzen ez bada eta aurkako taldearen aurretiko salaketa bat baldin badago, partidua galdutzat emango da salatuta izan den klubak aurkezten dituen ezinbesteko kausak behar bezala justifikatuak eta frogatuak izan ezean.**

10) **BALOIA:**

Baloia 4 zenbakikoa izango da.

11) ZELAIAREN ETA PORTERIEN NEURRIAK

Zabalean jokatuko da, eta luzera eta zabalera zelai bakoitzak dituen neurrien arabera izango dira. Dena den gutxi gorabehera ondoko neurriak izango dira: jokalekua 65 eta 50 metro arteko luzera eta 45 eta 30 metro arteko zabalera duen angeluzuzena izango da. Ateak 6(langeta) x 2(zutoina) izango dira. Neurri hauek kontutan izanda, jokalekua, salbuespen bezala, zelaiaren luzera aprobetxatuz marraztu daiteke.

12) PENALTI EREMUA

Ateko marrarekiko bi lerro elkarzutak margotuko dira, ateko poste bakoitzetik 9 metrotara. Aipatutako lerroak zelai jokoaren barnealdera 9 metro sartuko dira eta ateko linearekiko lerro paralelo batekin elkartuko dira. Lerro hauek eta ateko lerroa egiten duten eremua, penalti eremua izango da.

13) PENALTI PUNTUA


9 metrotara eta erdian markatuko da penalti puntua

14) ATE EREMUA

Penalti eremua bezala, bakarrik ateko poste bakoitzetik 3 metrotara.

15) JOKOZ KANPOKO EREMEUA

Ateko marratik 13 metrotara ezarriko da.



16) ASEGURUAK

Eskolarteko lehiaketa bat denez, Gipuzkoako Futbol Federazioari **ez dagokio** laguntza medikuaren estaldura, beraz lesioren bat gertatuz gero **Gizarte Segurantzza Publikora** edo jokalariaren ama edo aitak duen aseguru pribatura joan beharko duzue.

17) ARBITRAJEAK:

Bi fasetan partiduak kontzentrazio moduan jokatuko dira epaile kolegiatuekin. Arbitrajearen kopurua (33 euro) lehiaketen egutegietan etxean bezala agertzen diren klubak ordainduko dute. Dena den Epaileen Batzordearekin kontu korrontearen bidez ordaintzeko hitzartuta duten klubek modu honetan ordaintzen jarraitu dezakete. **Gipuzkoako Futbol Federazioak, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin daukan Hitzarmenaren babespean, kopuru hau neurri batean subentzionatuko du.**

18) BESTE ARAUAK

Beste arauak, futbol hamaikako lehiaketan dauden berdinak izango dira.

19) DIZIPLINA ARAUAK

Eskola kirolari buruzko 2013ko uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuarekin bat etorriaz, Instituzio Foralak eginkizunak eskuordetzean ematearen ondorioz diziiplina ahalmena honela gauzatzen da:

- a) Lehen auzialdian, lehiaketen garapen teknikoaz arduratzen den kirol federazioko diziiplina batzordeak.
- b) Bigarren eta azken auzialdian, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak. Honen ebazpenek amaiera emango diote administrazio bideari eta, araua jurisdikzionaleri jarraiki, horien aurkako errekurtsoa aurkez daiteke.

20) PARTE HARTZE BALDINTZAK

Taldeko kiroletako alebin kategoriako errendimendu hastapeneko lehiaketan parte hartzeko, derrigorrezkoa izango da ikastetxeek eskainitako parte hartzeko lehiaketetan parte hartzea, kasuan kasuko taldeko kiroletakoetan barne (2010eko ekainaren 18ko 104/2010 Foru Agindua).

Donostia, 2018ko urria
GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA

-Lehendakaria-
Juan Luis Larrea Sarobe